

## AITA SANTUA GEMELLIKO ERIETXEAN

Asko hitz egin da, azkenengo asteetan, Joan Paulo II.aren osasun egoerari buruz. Albiste izan dira, nola ez, erietxean eman dituen 9 egunak: otsailaren 1etik 10era bitartean. Artikulu honen bitartez, egun hauetako gertakari garrantzitsuenak gogoratu nahi ditut.

Otsailaren 1ean, afal ostean, arnasa hartu eta irensteko arazoak zituela ikusita, Renato Buzzonetti, bere mediku pertsonalak, erietxera eramateko erabakia hartu zuen. Ezin zen minuturik galdu. Egoera larria zen. Anbulantzian sartu eta Agostino Gemelli erietxera eraman zuten. Bertan, Rodolfo Proietti medikuaren gidaripean lehenengo probak egin zizkioten. Hauen ostean, hamargarren soilairuan beretzako gordeta zeukaten apartamendu berezira eraman zuten. Gaua lasaia izan zen. Ez zen lehenengo aldia Joan Paulo II.a ospitale honetara zetorrela. Bere pontifikatuan zehar egonaldi batzuk egin ditu, gogora ditzagun:

- 1981eko maiatzaren 13an San Pedro plazan jasan zuen atentatuaren ostean, 21 egun pasatu zituen, ekainaren 3arte, alegia.
- 17 egun geroago, ekainaren 20an, infekzio baten ondorioz, beste 20 egun ingresatuta egon zen.
- 1992ko ekainaren 11n, hestean sortu zitzaion tumore bat kendu zioten. Errekuperaketak 18 egun iraun zuen.

- 1993ko uztailearen 2an, ordu gutxi iraun zuen ohiko kontrola egin zioten.
- Urte bereko azaroaren 11n, 2 egun pasatu zituen bizkarreko arazo bat zela medio.
- 1994ko apirilaren 29tik maiatzaren 27 bitartean, 29 egun. Oraingoan, eskuineko hankako femurraren haustura.

\* Analisi batzuk egin ostean, apendizitis zeukala eta 1996ko urriaren 6tik 15era bitartean 10 eguneko egonaldia egin zuen.

Azkenengo agerraldietan erakutsitako ahultasunak Aita Santu zaharraren azkenengo egunen aurrean geundela zirudien. Baina, larrialdi giro hau baztertzeko, gauean bertan, Joaquin Navarro Valls, Batikanoko bozeramaileak, lehenengo azalpenak egin zituen: "Aita Santuari, hiru egunez izan duen gripeaz gain, arratsalde honetan laringo-trakeitis larriak eta laringospamo-krisiak eraso diote. Horregatik Gemelli erietxean berehala sartu beharra izan da otsailaren bateko 22,50ean".

Berehala zabaldu zen albistea mundu guztira. Erietxeko zuzendaritzak, bertan bildutako ehundaka kazetarietarako pre-



Aita Santua igandeko agerraldian

tsa areto berezi bat moldatu zuen. Bestalde, erietxeko aparkaleku bat telebisten talde mugikorrez beteta egon zen. Hurrengo egunean, mundu guztiko albistegiak zuzenean lotu zuten Erromarekin.

Bertan behera gelditu ziren Aita Santuak aste horretan zeuzkan agerraldi guztiak: asteazkeneko entzunaldi orokorra; Suitzako gotzaien bisita, eta beste ekitaldi batzuk. Nahiz eta agerraldi hauek ez burutu Vatikanoko erritmoak berdin jarraitu zuen: asteazkenean Condoleezza Rice, Estatu Batuetako Estatu idazkaria, Angelo Sodano kardinala, Vatikanoko diplomaziaren buruarekin batzartu zen Vatikanon; hausterre eguneko San Pedro basilikako elizkizun nagusia, James Francio Stafford kardinala buru zela ospatu zen.

Egonaldi honetan bisita kopuru murriztak izan zituen Joan Paulo II.ak. Baina aipagarriena, mundu guztian ospatu ziren



Aita Santua, Leonardo Sandri gotzaina –ezkerrean- eta bere laguntzaile bat, igandeko agerraldian

otoitzaldiak dira; ez kristauen aldetik bakarrik, baita islamiar eta judutarren komunitadeen aldetik ere. Italiako meskita batzuek beren fededunak otoitzera deitu zituzten “gizon handi honi gure elkartasuna adierazteko” zioen Feras Jabareen, Sienako islamiar sendiko nagusiak. Erromako juduen rabinoak ere bere otoitzak Aita Santuaren alde egiten zegoela adierazi zuen. Ikusten den bezala, Joan Paulo II.ak erlijioen arteko zubi garrantzitsuak eraiki ditu.


Otsailaren 2an, igandea, angelusaren otoitza bere logelatik zuzenduko zuela adierazi zuen Navarro Valls bozeramaileak. Ikusmin handia zegoen. Bertan bildu ginen kristau, kazetari eta ikusleak arretaz jarraitu genuen Leonardo Sandri argentinar gotzaiak, Vatikanoko Estatu Idazkari ordeak, Aita Santuaren izenean irakurri zuen mezua: “Ospitaletik ere Elizaren eta mundu osoaren zerbitzuan ari naiz”. Mezu horretan bertan Italian ospatzen zen Bizitzaren Eguna gogoratu zuen. “Bizian



(Gazteak otoitzean Aita Santuaren apartamentuaren aurrean)

konfiantza izatea eskatzen dute isilean oraindik jaio ez diren umeez”, idatzi du. “Italiako herri maitea eta sortzen ari den bizitza benetan zaindu nahi duten guztiak datozkik berehala gogora. Bereziki, katolikoei eta borondate oneko gizakiei, pertsonaren duintasunari zor zaion errespetuan, bizitzaren oinarritzko eskubidearen alde egiteko aholkua ematen dien Italiako Gotzainen ondoan nago”.

Otoitzaldia amaitzeko bere laguntzaileak mikrofonoa jarri zion, han bildutako guztiei eta baita otoitzaldia telebista nahiz irrati bidez jarraitzen ari ziren guztiei bedeinkapena luza ziezaien. Asko kostatu zitzaion baina bertan bildutakoek inoiz baino debozio handiagoarekin hartu zuten. Otoitz honi buruz esames anitz zabaldu ziren: Aita Santuaren ahotsa grabatuta al



Joaquin Navarro Valls,  
Batikanoko bozeramailea

zegoen? Hauxe, hedabide batzuek baieztatzen zuten albistea. Vatikanok, kasu hauetan gertatzen den bezala, berehala ukatu zuen albistea.

Otsailaren 10ean, osteguna, eguerdian egindako prentsaurrekoan, Joaquin Navarro-Vallsek Joan Paulo II.ak, erietxea arratsaldean utziko zuela adierazi zuen. Zazpi t'erdia gertu zirenean atera zen bere “papamobil”ean, bere idazkari pertsonalak alboan zituela. Jende asko bildu zen ospitaleko atarian Aita Santua agurtzeko. Nahiz eta aurpegi zurbilarekin egon, gogotsu bedeinkatu zituen han bildutakoak. Segurtasun neurri handien artean egin zituen Gemelli eta Vatikanoko arteko bideune laburra. San Pedro plazaren

inguruan ere jendetza bildu zen Aita Santuari ongi etorria egiteko. Berriz ere hor dugu, Vatikanon, bere etxean.

Azkenengo egunetan zehar Italia eta nazioarteko hedabide asko, Aita Santuak ea dimititu behar duen galdezka aritu dira. Angelo Sodano kardinalak, “La Repubblica” egunkariari hauxe erantzun zion: Joan Paulo II.ak dimititu? Hau Aita Santuaren kontzientziari utziko diogu”. Adierazpen hauek zeresan asko eman dute. Jakina, bakoitzak bere interpretazioa egingo du. Beste kardinal batzuk ere mintzatu dira gai honi buruz: “Jaungoikoak jarraitzeko indarra eman diezaiola” Stafford kardinala; “Dimisioa? Aita Santuak berak erabakiko du” Lustiger kardinala; “Aita Santuak hitzik egin gabe ere agindu dezake” Pompedda kardinala; “Dimisioa? Denok onartzen dugun hipotesia da” Mejia kardinala; “Gustu txarrekoa da dimisioari buruz hitz egitea” Re kardinala. Erroman garbi dute, Aita Santuak aurrera jarraituko duela. Badu bai, gizon honek, zerbait berezia...

*Jon Korta*

Erroma